


TAKILI-TAKULU FANFAREA



TAKILI-TAKULU. Lezoko eta Lezorako egindako fanfarea, herriari bere alaitasun eta musikarekin zerbitzeko. Lezoko izena zenbait kanpoko herritan azaldu dute. Hobeto ezagutzeko nola eta zertan ari diren Joxe Mikel Garmendiarekin, beste batzuekin batera fanfareko direktibo eta musikoarekin, elkarrizketa bat eduki dugu. Hemen doa berarekin egindako solas-aldia:

ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ ǀ

ASKE: Noiz eta nola sortuzen Takili-Takulu fanfarea?

J.M.: Takili-Takulu fanfarea 1980 urtean sortu zen. Txistulari taldean zerbeit gehiago egiteko gogo haundia zegoen eta egun batean, batek txaranga bat osatzea proposatu zuen eta honela hasi ginen.

ASKE: Noski, hasterakoan helburu batzuk izango zenituzten, zeintzuk ziren?

J.M.: Honekin, guk nahi genuena, herri mailan kultura edo musika zabaltzea zen. Lezon musikarako jende asko zegoela ikusten genuen, baina ez zegoen ez bandarik, ez fanfarerik, ... Beraz, txaranga bat osatu genuen bai herria alaitzeko eta baita ere guk ondo pasatzeko.

ASKE: Zer medioekin kontaktzen zenuten hasieran: jendea etab.?

J.M.: Hasieran ez genuen ezer eta txistulari batzuk eskusoinua (akordeoia) jotzen bazekiten, txirula eta eskusoinuekin saio batzuk egin genituen Lezon, Oiartzunen, Irunen, ... Txistulari taldeko diruarekin bonboa, kaxa, txindatak eta bonbardino bat erosi genuen. Txistularietaz gainera, pertsona batzuk ere sartu ziren, batez ere eskusoinujoleak, baina ez ziren asko izan. Honela urte bat igaro genuen. Eta 1981eko udaran tronpetak, klarineteak, saxofoiak, ... erosi genituen, Lezoko Gurutze Santuaren jaietarako ikastea konprometituz. Udara hontan jende gehiago sartu zen, eta irailerako zerbeit ikastea lortu genuen. Eta irailean ateratako diruarekin, aurretik erositako instrumentoak ordaindu genituen. Beraz, hasieran genuen gauza bakarra

.jendea zen,ez dirurik,ez eta instrumentorik ere.

ASKE:Zer nolako transformazioak eduki dituzue?

J.M.:Aldaketa sakonena edo garrantzitsuena lehen aipatutakoa da: txirula eta eskusoinuak jotzetik,saxofoi,tronpeta,klarinete... jotzera pasatzea.Beste aldaketak ere izan ditugu,adibidez jendearena;jendea sartzen eta ateratzen ari da urte guztian zehar.Gaur egun hasiera hasieratik bost edo sei pertsonak jarraitzen dute fanfarean.

ASKE.:Lezo herrian fanfare baten beharra ikusten al duzute?

J.M.:Bai,zergatia ez dakit,hori nik uste dudan gauza edo iritzi bat da.Lezo nahiko haundia da eta gero eta jende gehiago ari da musika ikasten.Txaranga batek alaitasuna ematen dio bai herriari eta bai bere biztanleei.Aldameneko pertsonekin erlazionatzeko bide on bat da.Lezo herri alai eta elkartu bat da,baina alaitasun hori badirudi galtzen doala;berriro herri alaitu bat izateko,kultura mailan gauzak landu behar dira, horien artean fanfare bat.



KONTRATUETARA KO:	JOXE MIKEL GARMENDIA	ANDONI PIKABEA
	Jaizkibel Ibilbidea, 23 - 4.º D Telf. 52 49 21	Kale Nagusia, 27 - 1.º A Telf. 52 52 72

ASKE:Nola antolatzen zarete fanfare barnean:lendakaria,kontratoak, ensaioak...?

J.M.:Fanfare barnean denak berdinak gera,baina badago talde bat

astero astero elkartzten dena, gutxi gora behera lan guztia egiten duena: arroparen arazoa, aktuzioak, partiturak...

Badirudi ez dela lan haundia baina hor egon behar da zer den jakiteko. Ensaioak astean behin egiten ditugu eta aktuzioak hartu edo ez hartu denon artean erabakitzen dugu.

ASKE: Nork kontratatzen zaituzte normalean, non jotzen duzute...?

J.M.: Leku guztietatik deitzen gaituzte; oraingoz Euskal Herri osoan jo dugu, baita beste aldean ere, eta León... probintziatik deitu gaituzte. Baina normalean beti elkarteak edo lagun taldeak dira deitzen gaituztenak, udaletxeek gutxitan, eta honek gauza bat ona eta bestea txarra du: elkarte batean jotzerakoan giro ona dago baina, alde txarra, diru gutxiago ematen dizute. Hau da udaletxe batek gehiago ordaintzen dizu. Lehen esan bezela, elkarteak dira ia beti deitzen gaituztenak, honela ez dugu diru askorik ateratzen (batzutan ezer ez), baina ondo pasatzen dugu.

ASKE: Zenbat diru jasotzen duzute aktuzio bakoitzan, eta zertan erabiltzen duzue?

J.M.: Aktuzio baten balioa asko aldatzen da; ordu kopuruen baitan, lekua, elkarte edo udaletxea den, eta gauza gehiagoen baitan. Ez dago kopuru zehatz bat; ordu kopuru berdinegatik behar bada leku batean 60.000 pezta kobratzen dituzu eta beste batean 30.000 pezta, edo ezer ez. Irabazitako dirua erropa herritan, instrumentu herritan, afaritan... erabiltzen dugu.

ASKE: Zer laguntzak dituzute eta zeintzuk dira zuen arazo garrantzitzuenak.?

J.M.: Laguntzarik ez dugu jaso inoren eskutik. Fanfare hau, lagun talde batek osatu zuen eta lagun talde hori aldatzen joan da baina ez zaio kanpotik laguntzarik eman. Diputazioak urte batean diru laguntza bat eman zigun, hori izan da bakarra, gehiago ez dugu jaso. Lezoko udaletxeak, lehengo korporazioak, behin baizik ez zigun eman. Laguntza moralari dagokionez, lagun batzuk ematen dizutena edo jotzen ari zarenean jendea pozik ikustean zure barnean sentitzen duzuna. Gustora jotzen duzu, baina hortik aurrera, ezer ez. Gure arazoei dagokienez

asko dira baina batez ere garrantzitzuenak batzuk dira:

-Jendea; gero eta jende gutxiago gera, naiz eta kartelak jarri jendea fanfarean sartzea gonbidatuz, inor ez da animatzen, badirudi denak solfeori ikara diote, hori bait da nere ustez ostopo handiena. Toki hau aprobetxatuz, esango dut solfeoa oso garrantzitsua dela, eta jakinaz abestiak errezago ikasten direla baina ez dela beharrezkoa. Momentu hontan fanfarean oso gutxi dakite solfeoa. Honela ba, ea jendea animatzen den, orain dagoen jendea unibertsitatetera, soldaduskara, ... joan behar du eta batez ere orain jende beharrea gaude.

-Entsaiatzeko toki egokia; gaur egun, denak ondo dakiten bezala "Aserraderos"ko lokaletan entsaiatzen dugu, oso handia da, baina toki iluna, zikina... hitz batetan esateko desegokia. Zuzendaritzaren bilerak egiteko ere, tokirik ez dugunez, tabernetan egin behar ditugu; taberna batean sartu, mahai batean eseri eta hitz egin.

ASKE: Eta bukatzeko, zeintzuk dira hemendik aurrera zuen proiektuak?

J.M.: Hemendik aurrerako proiektuak orain bezala jarraitzea da, abesti berri gehiago ikastea eta ea kanpotik egun batzuetarako deitzen gaituzten. Baina, batez ere gure proiektuak, nahiak edo desio batzuk betetzea dira: txaranga aurrera jarraitzea, Lezoko herriaren laguntza jasotzea eta oringoz ez hiltzea. Orain arte momentu honak eta oso txarrak igaro ditugu, orain ere arazo larri batean gaude, baina irtenbide bat aurkitzen saiatuko gera, zeren nere ustez Lezoko herriak fanfare bat BEHAR eta NAHI du.

-----ooooo000oooo-----



Horrelakoa dugu Takili Takulu fanfarea, lau urte pasa eta gero, bere ostopo eta guzti, aurrera doa. Orain arteko gogoarekin eta laguntza gehiagorekin jarraitzea espero dugu. ZORTE ONA... ETA AURRERA!!!

Juan Luis URKIZU